

zerutarra baldin bada ere, historiko bihurtu du Kristoren *gizakundeak, eta hasiera gisa hona indiko bizitzan ere "bizi" dute Jainkoak justifikatu eta biziberritu dituen gizon-emakumeek.

Ik. Berriztapena, 1; Betiko bizitza.

Bizi-elkartea

Erljio nagusi guztietan aurkitzen dira, *erlijio-esperientzia sakontzeko, "munduko" gorabeherak bazterturik, elkarrekin bizimodu osoa egiten duten taldeak. Hauek dira, hain zuzen, bizitzeko elkartek, bestelako elkartemoduetatik ezberdinak.

Budismoa, bere osoan, monakoen (= *bhikkhu-en) elkartean (= *sangha-n) oinarriturik eta egituraturik dago. Bestalde, sangha hitzak bhikkhu-en ordena osoa adierazten du, ez elkarteko bakoitza bakarrik. Ik. Budismoa.

Horren kideko instituzioa da *axram-a hinduismoan. Kristau-monastegien antzera eraturako *elkartek dira axram-ak, *gururen baten inguruan bilduak. Hala ere elkarteko hauek, gidariren baten inguruan eratzen direlako, ez dute kristau-monastegiek duten iraupenik. Ik. Hinduismoa.

Kristo aurreko azken judaismoan ere aurkitu da antzeko instituziorik: *eseniarrena, esate baterako.

Kristauen artean, mendebaldean nahiz ekialdean, oso zabalduak dira bizi-elkarteko biziera. Horrela bizi diren gehienak *erlijiosoak dira. Zuzenbide Kanonikoaren arabera, erlijiosoen ezaugarriak nagusienetakoak elkarteko biziera da, hain zuzen ere.

Erreforma protestanteak baztertu egin zuten erlijioso-elkarteen biziera; baina anglikanoek lehenengo eta *ebanjelikoek geroago berriro onartu dute. Oso ezaguna da, hain zuzen ere, Taizé-ko elkartea, *monako edo lekaide ebangelikoena.

Islamismoan Tariga (=bidea) dira sufi-en ordena eratuak, eta beraien oinarritzko elkarteei ribat deritze.

Bizi-elkarteko erlijiozkoen fenomenoak, beraz, ia guztiena da erlijioen munduan.

Kontrako hiru bideetatik sortu izan dira bizi-elkartek, historiari begiratzen badiogu:

1. Bakardadetik elkartera: Erljio guztietan sinestun batzuk familia, lagunartea eta munduko eginkizunak utziz, bakardadera biltzeko joera eduki dute, horrela erlijiozko bizi sakonagoa eta biziagoa lantzeko asmoz. Baina horrelakoak ugaritzen direnean, arazo ekonomikoak sortzen dira eta bizitzeko segurtasun txikienekoaren premia ere bai.

Horrela beti elkarganatzera jo dute monako horiek, elkar babesteko, eta azkenik bizi-elkartetara biltzera. Prozesu hau gertatu zen *bhikkhu budisten artean, baita lehen aldiko kristau *eremutarren artean ere.

2. Egituratik elkartera: Erljio-erakundeak instituzionalkerian eta formalismoan erortzen direnean, sarritan sortzen da *erlijiozko esperientzia elkarrekiko komunikazio pertsonal handiagoz bizi nahia. Joera horretatik sortu dira *bhakti hinduen *axram-ak, sufi musulmanen tariga-k, hainbat kristau-ordena. Ik. Erljioso-ordena.

3. Eginkizunetik elkartera: Zenbait kongregazio katoliko moderno, eta horietako tokiko bizi-elkartek, eginkizun edo lanen bati loturik sortu dira, eta horretarako eratu bereziki. Ik. Erljioso-kongregazioa.

Bizi-elkartek ia beti gizonezkoenak ala emakumezkoena izaten dira Elizan, inoiz mistoak ere ezagutu baldin baditu ere historiari. Ik. Beginak.

Bakoitzaren araudiari jarraiki, ekonomi elkartasuneko eta berdintasuneko mailaren bat (etxea, jana, jantziak, etab.), baita funtsezko abiaburu eta helburu eta erlijiozko ariketa elkarrekiko batzuek beharrezkoak dituzte bizi-elkartek.

Erljiozko loturan oinarritutako bizi-elkartea, harreman sexualen ukoaren edo murriztapen berezien, elkarrekin arteko obedientziako loturaren eta ondasunen talde-jabetza eta -erabileraren ardatzen gainean eratu ohi da funtsean.

Erljioso katolikoek Ebanjelioko aholkuen bizi-aitorpena edo profesioa dute elkarteko bizieraren oinarria. Ik. Erljioso-profesioa.

Ik. Botua; Oinarriko kristau-elkartea.

Paulo Agirrebaltzategi

Bizi-grina

Ik. Grina.

Bizialdaketa

Ik. Bihotz-berrikuntza.

Biziaren gorpila

Budismoaren sinbolo nagusia, gizon-emakumeen jaiotzen, heriotzen eta *birjaiotzeen katea adierazten duena.

Ik. Berragiztapena; Gorpila.

Biziaren zuhaitza

Sin.: Biziaren arbola

Mesopotamiako mitologian agertzen da,